

ENTZUTEN AL DIDAZU?

Jarduera honekin, zera lortu nahi dugu

Besteei entzuten jakitearen garrantziaz jabetzea.

Iraupena

Jarduera hau saio bakar batean egiteko dago pentsatuta.

Beharko dugun materiala

Eranskinean hitzekin datozen txartelak.

Zikloak 2 3

Aurretiazko oharra

Jarduerari hasiera eman baino lehen, moztu eranskinean datozen hitzen txartelak, ikasle bakoitzari bat emateko.

Hiru esaldi daude. Ez dira hirurak batera erabili behar. Ikasle kopuruaren arabera aukeratuko ditugu.

Esaldiak hauek dira:

- 1. esaldia: Zailena entzuten jakitea da.
- 2. esaldia: Gustatzen zaigu besteek guri entzutea.
- 3. esaldia: Gehiago ikasten dugu entzuten, hitz egiten baino.

Entzutea ez da belarriaren bidez mezua jasotzea bakarrik; entzundakoa ulertzea ere bada. Baina, horretarako, entrenamendua behar da, entzuten jakitea ez baita erraza. Askotan, gure kontuak kontatzeaz bakarrik arduratzen gara; besteek gure kontuak entzutea nahi izaten dugu, denek jakitea zer egin dugun; baina, entzutea tokatzen zaigunean, zaila egiten zaigu.

Horregatik, entrenatu egin behar dugu; izan ere, ez badugu ikasten besteei nola entzun behar diegun, ez dugu inoiz jakingo noiz dauden gure beharrean. Gainera, entzuten dugunean askoz gehiago ikasten dugu, hitz egiten dugunean baino.

Garapena

1. fasea

Eman haur bakoitzari txartel bat. Ondoren, esan txartel bakoitzaren goialdean ageri den zenbakiaren arabera taldeka daitezela. Talde bakoitzak zirkulu bat osatu beharko du.

Esan adierazten diegunean denek batera ozen irakurri beharko dutela txartelean idatzita daukatena, behin eta berriro, eta bitartean saiatu behar dutela beren taldeko besteek zer dioten entzuten. Gelditzeko esaten diegunean, gelditu egingo dira.

LEHEN HEZKUNTZA

Ondoren, honelako galderak egin:

- Entzun al duzue zuen taldekideak zer esaten ari ziren? Hitz solteak entzun dituzue, ala esaldi osoak?
- Nola sentitu zarete? Zuen ustez nolakoa izan da sortu den egoera? Saiatu egoera hitz bakar batean laburbiltzen. Idatzi erantzunak arbelean.
- Entzun dituzuen hitzek, elkarrekin, mezu bat adierazi nahi digute. Zer egin dezakegu mezua zein den jakiteko?

2. fasea

Aurreko fasean irtenbide hau planteatu ez badute, azalpena eman:

«Orain, talde bakoitzean, pertsona bakoitzak ozen irakurriko du bere hitza, eta besteek, bitartean, arretaz entzungo diote».

Denboratxo bat utziko diegu, entzun dituzten hitzak erabiliz zentzua duten esaldiak osa ditzaten. Bukatzeko, irakur ditzatela sortu dituzten esaldiak.

Denen artean, hausnarketa egingo dugu, honelako galderen bidez:

- Esan ezazue, hitz bakar bat erabiliz, nolakoa izan den zuen ustez azken egoera hau. Alderatu jasotako erantzunak aurreko fasean jasotakoekin, eta hausnartu.
- Nola sentitzen zarete orain?
- Zer pentsatzen duzue mezu hauen inguruan? Garrantzitsua al da esaten digutena?

Adierazi zer komunikazio-arazo sortzen diren besteei entzuten ez jakitearen ondorioz:

Arazorik izan al duzue inoiz arretaz ez entzuteagatik (enkargu bat egitean, mesede bat, erosketa bat...)? Nahi duenak aipa dezala bere kasua.

Ebaki lerro berdetik

TALDE 1

Zailena ¹

entzuten ¹

jakitea ¹

da ¹

TALDE 2

Gustatzen ²

zaigu ²

besteek ²

guri ²

entzutea ²

TALDE 3

Gehiago ³

ikasten ³

dugu ³

entzuten ³

hitz ³

egiten ³

baino ³